

Zu lehenago

Jon Alonso Fourcade

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1994



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Zu lehenago

Jon Alonso Fourcade

Julene Azpeitia 7. ipuin lehiaketa

1994

1. saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Jon Alonso Fourcade (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

"Zu lehenago" esan eta zaplastako amultsua —ez amultsuegia— eman nion ipurdi-masail biluzian. Deliak astapotroa nintzela edo antzeko zerbait murmurikatu zuen, hitzak marruskatuz, eta niregana jiratu zen, besarkatzera eginez. Zara, Zara, esan zidan, denbora irabazi nahian. Bultzatu egin nuen, bortxarik gabe baino irmo. Tira, segi komunera. Zu lehenago. Protesta egin zuen oraindik, bera joaten zela beti lehena edo antzeko zerbait. Horixe joaten zela beti ni baino lehen, orain arte izan ditudan berrogeita hamarren bat amoranteak —gutxi gora behera, gau batekoak bezala urte batzuetakoak kontatuta, putak aparte— ni baino lehenago joan diren bezala. Halakoxea da eta, Zaratustraren legea. Maite dut eta Delia komunean txiza egin, hortzak garbitu eta dutxatzen den bitarteko ordu laurden horretan ohearen jabe bakarra izatea, ohearen zabal osoa nireganatzea eta potrojorran egotea. Minutu onenak dira, eta kremaren bat edo beste —neskek beti dute kremaren bat aurpegi gainean edo auskalo non igurtzi beharra; guztiek, baina— ematearren bost minutu gehiago luzatzen badu nire bakar-joko hori, hainbat hobe. Segi komunera, neska arraioa. Delia jaiki zen azkenik eta komunera abiatu, putakume bat nintzela esanez. Hobe horrela. Ikasi egin du, Deliak, neska azkarra da; ikasi beharko, jakina, behin jokoan bezala edo, borrokan egiteko, nork bestea ohetik lehenago bota esan eta azkar asko ikusi baitzuen bere burua zolan, bizkarra lurraren kontra emanda eta hanka-besoak airean, labezomorro bat bezala. Ez zuen halakorik askorik espero, ez horixe. Negar marraka batzuk egin zituen, baina ikasi egin zuen.

Komunera abiatu zelarik zigarro bat piztu eta hankak zabaldu nituen. Libre neukan eskuarekin pertsiana-orrien arteko zirrikitua zabalagotu nuen eta kalera begiratu. Kotxea han zegoen. Fanny ere han zegoen, aurreko etxean, besoa besoaren gainean, bular oparoak leihoaren ertzaren kontra emanda, ezer egin gabe, beti bezala. Senarra etxetik joan zitzaionetik ez zuen besterik egiten, kalea begiratu eta jendearen joan-etorrien zelatan egon, kontaktatu halakoa. Onetatik ateratzen ninduen. Bera ere BMWari beha zegoela konturatu nintzen. Gustatu egiten zitzaion. Hori behintzat ez zen harritzekoa, artaz aukeratutako kotxea baitzen. Modelo txikia zen, baina berria, berria ez ezik azkenetakoa, eta tategoko lagun batek fabrikatik atera ondoren ukitu batzuk emanda, prestatuta. Autopistetan ez zion inori inbidiarik, eta errepide meharretan zilindrada handiagoko kankailuak atsoak bezalakoak ziren haren ondoan; bala bat zen. Fannyri ere gustatu egiten zitzaion. Nori ez, alajaina. Ziur nintzen edozer

egiteko prest legokeela gidatu ahal izateagatik. Une batez kotxean zerbait arraro nabaritzen nuela iruditu zitzaidan. Orduan ez nuen jaramonik egin.

Deliaren etxea izenik gabeko auzo batean zegoen. Izenik gabea diot ez benetan izenik ez zuelako, baizik eta edozein hiriburutatik gertu dagoen beste hainbat auzo bezalako delako; konstruktoreentzat mokadu goxoak diren etxe-multzo batzuk, arrandia handiz parkea deitzen dioten belardi goseti bat dozena erdi zuhaitz sifilitikorekin, supermerkatua eta taberna. Horko hartan etxeak ez zirela handiegiak eta parkeko belardian ez zegoela soilune askorik; haurrak jolasean ibiltzeko tramankulu batzuk ere bazituen, eta tabernak — Deliaren etxearen atzealdean zegoen—, lehengo azulejoak alde batera utzirik, egurra imitatzen zuten gaiez hornituta zegoen; hortaz "kafetegia" zen eta kafe bakoitzeko hainbat gehiago ordaindu behar izaten zen. Auzokideak langile kualifikatuak ziren, behe mailako funtzionarioak, negozio-gizon frakasatuak, pintterdiko enpresari tranposoak. Etxeetako paretak paperezkoak ziren, zer eginik ez zeukan etxeoandre eta langabetu asko zegoen; marmar eta matraka asko zebilen, alegia, eta ez zen txunditzekoa, auzokoen erdia bertatik atera gabe aspertzen zenez. Eskerrak jendearen mugimendua ere bazegoen: industrialdeko fabrika bat erregulazioan sartu edo ixten zenean langile andana batek ospa egiten zuen erretiroa garaiz baino lehen hartuta. Tailer txikiren batek kiebra jotzen zuenean berdin. Herenegun arte nekazari edo abeltzain ibilitako Periko Smith berriek betetzen zituzten berehala haiek husturiko etxeak. Mugimendua bazegoen, eta horri esker hainbat gauza egin zitekeen oraindik, mihiluze nardagarri horiek "auzoko giroa" deitzen zuten frustrazio eta erdipurdikeria horretatik aparte, bertatik mugitu gabe urte mordo bat irautea lortu zutenek bultzatzen zutena.

Fanny bigarren pisuko leihotik kalean zehar zebilen hortzik gabeko atso batekin mintzatzen ari zen. Horra hor auzoko giroa; inor larrutzen ariko ziren. Onetatik ateratzen ninduen. Bere istorioa nahikoa barregarria ere bazen, Deliak kontatua nekien, eta, gainera, behin bere etxean egonak ginen, Delia eta biok elkarrekin. Gurekin egotea maite zuen, nik berarekin egotea maite nuena baino dezente gehiago. Fanny hura txikerra eta zabala zen, halako izter lodikoteak zituen, beso indartsuak, hatz potoloak; bere itxura gehiago zegokion Ekialdeko errepublikaren bateko mailu-jaurtitzailari pasarela-lanak egiten dituen modelo bati baino, nahiz bera —batek daki zer dela eta—, edozein egunetan Hollywood-eko produktore batek deituko ziolako uste osoan egon. Etengabe hitz egiten zuen, txori berritsuen antzera, oihuka eta farre algaraka. Ez dut uste diskrezioa hitzak esan nahi duenak arduratuko zuenik, baldin eta zer esan nahi duen bazekien. Bi seme-alaba zituen, eta haiek nola tratatzen zituen kontuan hartuz, armadan ez dagoela sarjentu gogorragorik pentsa zitekeen. Nik ez nuen senarra ezagutu; Deliak dio tipo zintzoa zela, langilea eta isila. Gizagaixo bat, miserable bat, bistan da. Bere etxean egon ginen egunean ostiral gaua zen, senarra eta seme-alabak kanpoan zeuzkan eta tragoa egitera gonbidatu gintuen, aspertzen zela aitzakiarekin. Berandu zen eta bapo afalduta gentozen, kopa batzuk hartuta ere bai. Neuk ez nuen joan nahi baina amore eman behar izan nuen Delia arrenka hasi baitzitzaidan, ezetz esatera begiak bere esku propioez tokitik aterako dizkizula iragartzen zuen aingeru-keinu horrekin. Kariño pixka bat hartua zion, nonbait, eta hura horrelakoetan ama petoa izaki. Tragoa onartu egin genion, azkenik. Ni adar joka eta burlaka ibili nintzaion denbora guztian, baina ez zen konturatu ere egin arpa jotzen ari nintzaionik, hain zen mentsa eta ergela. Onetatik ateratzen ninduen. Pelikula pornografikorik ote zuen galdetzen nion, trufa eginez, eta hara non ustekabean

bideo bat atera nonbaitetik eta hortxe paratu zigun, bideo-zinta ezertarako ere atzera bildu gabe, zegoen tokian. Sekulako txustarra eta postetxeko lehoiarena bezalako aho-zuloa, estolderia guztien ama. Zurrupaketaren bukaera omen zen, antza, ezen berehala ekin baitzioten txakurren gisan, gogotik ekin ere. Beroaren lehen zimikoak sentitzen ari nintzela kendu egin zuen, alu halakoak, "hauek *bestearantz* dira, bakarrik", esan zuen, haurrak baikin eta karamelua kendu izan bailigun. Halako zozoa zen, gizagaixoa. Nik barre egin nuen nire baitan, hura bezalako haragi puska itxura askorik gabea horrelako trantzetan ikusten direnak imitatu nahiz irudikatze hutsarekin batera, koitadua. *Besteak* etxeko konponketak egiten omen zituen eta ez omen zituen zalaparta askorik ateratzen, tipo txikia omen zen, argala, gauza gutxi. Halako batean, aurretik gaztigu edo espantu handirik egin gabe, Fanny eguerdi aldera etxeratu eta ohar bat aurkitu zuen sukaldeko mahai gainean: "Joan egin naiz. Jar zaitetz harremanetan nire abokatuarekin". Hara, *beste*a. Bizirik irauteko kontua izango zela iritzi nion. Ea nork jasaten duen hori bezalako zamarririk pornografiak berotuta eta gimnasia horietan sartuta, endemas txikia eta ezdeusa izanda.

Baina bazegoen Fanny-ren eldarnio pornografikoak baino gora-behera kezkarriagorik, jakina. BMWarekin kotxe madarikatua, zer zen behealdean segundo batez ustez atzemandako "flash" metaliko hori, egia ala irudimenaren fruitua? — azken sei hilabeteetan dozena bat aldiz etorritako gizona ere — Parisot— ikusiko zuen, beti leihotik begira egoteko bere ohitura gaizto horrekin. Jakina, ikusi egingo zuen, agian behin baino gehiagotan, Parisot zalaparta askorik gabe gaueko ordu txikietan etorri eta kotxea aparkatzen zuen arren. *Ikusi* egingo zuen, eme arraioa, den dena ikusten zuen, den denetan sartzen zuen sudurra maixiatzaile nardagarria. Parisot talegoan ezagutu nuen, ez zen tipo gaiztoa, ez ni baino gaiztoagoa bederen. Talegoa ongi dago behin edo birritan egoteko, eta ez luze. Batek jende interesgarria ezagutzen du, gauzak ikasi egiten ditu. Urtebete baino gehiago ez da komeni, ordea. Nik behintzat hotel mordo bat ezagutu dut, konplitu dut nirearekin, ikasi beharreko kodigo guztiak ikasi ditut, hezur guztiak bere tokian dauzkat eta ipurditik lehen bezain sano nabil, guztiak ez bezala, nahiz eta askotan erraza izan ez; oraindik orain ibiliko da bateon bat hortik zehar nire larruarekin gerrikoa egingo duela amets eginez. Dios, ni ez naiz talegora itzuliko, hori baino lehen nahiago hankaz aurrera atera, eta hau ere berandu baino beranduago, ahal bada. Halako gogoetan murgiltzen hasia banintzen, larritasunaren atzaparrek, zintzurra zanpa-zanpa eginda utzi behar dizutela diruditen horiexek estutzen nindutela seinale, gogo hiltzaileak aurkitzen nizkion oraindik egiazkoa ote zen ez nekien distira beltz hari, nire BMWren tripetatik lipar batez ikusi-ez ikusi nuena. Parisot-ek kontaktu onak zeuzkan egiazko mundua lurpean bezala sartzen den ezmundu hartan, espetxe-zuloan, alegia, eta bera etorri zen nire bila, beste norbaiten partetik, noski. Hi haiz hi, tipoa, hasi zitzaidan. Moldatzen badakik, fidatzekoa haiz. Lausenguka, edo. "Intelektuala" deitzen zidan, kabroi arraioak. Eta gero, kontent al hago hire bizimodu miserable horrekin, begira ezak hire burua, hik ez dakik setazko maindiretan lo egitea zer den, bistan zegok, zer ari nauk setazko maindireak, hik ez duk bero bazkaldu joan diren lau urteetan, praka berriak erosteko iritsiko balitzaik, sikiera. Intelektual guztiak berdintsuak zarete. Ni ez nengoen kontent nire bizimodu miserablearekin, hori egia zen, bero jateko eta prakak eskuratzeko hain gaizki ez banenbilen ere. Proposamenak interesgarria zirudien. Futbolari baten pare biziko haiz, esan zidan Parisot-ek. Kartzelatik atera eta lanbide berri hartan ikasi nituen, urtebeteko epe laburrean, mundu

honetan ikas daitezkeen alukeria guztiak, edo ikasteko falta nituenak, bederen. Eta futbolari baten pare bizitzearena, bai eta ez; futbolari erdipurdiko baten pare, agian, gutxi ordaintzen duen talde batean. Eta baloi puta bati lau ostiko gaizki emanda baina dezente beldur handiagorekin, hanka haustekoa. Hanka edo burua. Etorriak al ziren nire goranahiak errotik moztera? Gutxi fio, Zara, inorekin ez fio.

Eta Fanny han zen, beso lodiak leiho ertzean emanda, bularrak katarata bailiran gainez egiten ziotela, eta kotxeari begira. Parisot ez ezik, paketeak ere ikusiko zituen inoiz, horixe ere pentsatzen hasi nintzen, nahiz horretan okertzen ari nintzen zalantzarik gabe, paketeak ez baitziren inoiz kotxetik ateratzen bere helburura iritsi arte. Urduri nengoela, horra, eta Fanny begiluze horrek nire joan-etorri guztien berri izango zuela pentsatzeari emana. "Delia txulo batekin oheratzen da". Fanny horrek barreiatuta behar zuen zurrumuruak, horixe, nork bestela. Onetatik ateratzen ninduen. Bost axola niri jendearen esana, baina hori gehiegizkoa zen. Deliari ostia pare bat inoiz, tira, nork agintzen zuen erakusteko lain, besterik ez, baina hortik bestera itsaso oso bat besteko distantzia badago. Hori baino lege handiagoa nion nik Deliari, neska gisakoa baitzen, gizon bati atsegina nola eman dakienetakoa; mokofina ere bai, eta ez bakarrik jan-edanetan, esne-mamitan hazia zela esaten zuen eta nik sinistu egiten nion, gauza horiek jarreretan eta jokabideetan nabaritzen dira, burgeskumeak beti izaten dira dotoreagoak, berezkoa da, amaren bularretik jandako esnea besteona baino hobea omen da eta. Ni baino arrain handiagoa harrapatuko zuen Deliak hogeita hamarrak ongi paseak eta lau haur —hiru aita diferenteenak, gainera— eduki izan ez balitu. Eta iraganen gertatutako droga-kontu zahar bat, nonbait inoiz ahazten ez zena, azken haurra eduki zuenetik alkohola eta tabakoa, beste zikinkeriarik hartzen ez zuela egia izanagatik *ere*. Haragiak toteltzen hasiak zituen bular, sabel eta izter aldean, baina oraindik plantako zegoen eta jakintsua zen. Gazteagoak eta haragi-gogorrangoak dira, baina zozoagoak eta pinpirinagoak ere bai, harrapatzen neketsuagoak. Nik ez nuen galtzeko denbora askorik, eta gauza jakina da loraldiaren bukaera eta negu gorriaren etorrera hain urruti ez dagoela susmatzen hasten direnean printzesa guztiei lasterrago irekitzen zaiela morkotsa, bizi-legea da. Deliak estudioak eta bazituen. Zer zela eta ez zen dama bat, nondik nora lotu zen nirekin, niri ez eskatu konturik, ni han nengoen zupo lodirik gehien behar eta nahi zuen unean, beharbada hori baino ez zen, beharbada ez da inoiz hori baino gehiago. Bi egun lehenago haurdun zegoela esan zidan. Aita nor zen galdetu eta barrez hasi zitzaidan. Heu haiz, zerria, nor bestela. Elkarren arteko tontakeriak sei hilabete lehenago eduki zuen hasiera, eta orduantxe esan nion Parisot-i zita lekua aldatzeko, eta harrezkero bisita egiten nion Deliari hamabostean behin edo, eta egun pare bat pasatzen nuen haren etxean, aurretik haurrak bere amarenera bidal zitzaizkirekin. noski. Egun pare hura nahikoa izaten zen Deliarekin solasean aritzeko, tragoren bat egiteko, atsegin pixka bat hartzeko —entziklopedia batean ez dira sartzen horrek gorputzarekin egiten dakizkien guztiak— eta, bide batez, Parisot-ekiko afera aurrera eramateko. Deliarekin eskuzabala nintzen, laguntzen nion diruz, pixka bat, eta berak ez zidan gauza handirik galdetzen; susmatu, edozer susmatuko zuen, behar bada, baina fitsik ere ez zuen esaten; azkarra zen, horixe. Bazuen ziztor puska lodia hamar milakoetan bildua, zer gehiago nahi izan zezakeen. "Zerri galanta haiz", gero eta maizago esaten zidan; eta bai, zerri galanta nintzen, gutxi gora behera besteak bezalakoxea, dexente ahalke gutxiagorekin eta ausardia pittin bat gehiagorekin, hori zen guztia. Hasieran ez

nuen sinistu haurdun zegoelakoa. Gero haurra galtzeko eskatu nion. Ikusiko zuela.

Beste zigarro bat piztu nuen pertsianaren zirrikitutik begiratzeari utzi gabe. Delia atera zen bainugelatik, toalla luze batek adats beltza biltzen ziola, eta mugitzeko esan zidan, ez ote genuen bueltatxo bat eman behar bazkaldu baino lehen. Gerria begiratu nion eta nik landatutako hazia toki hartan garatuko zela inon idatzirik izango ote zen pentsatu nuen lehen aldiz. Baina irudipena gogotik erori zitzaidan kotxea hainbatgarrenez behatu eta *ikus*i egin nuelako. Kotxeko faroarekin gaueko iluntasunean katu beltz baten begi gorriaren antzera ikusi ere, zitzada iheskorren gisan. Hortaz, ez zegoen dudarik, kotxeak *zerbait* bazuen behealdean. Zutitu nintzen azkar eta zalu, ezer gertatuko ez balitz bezala baina gihar guztiak zurt eginda, Deliari ezer esan gabe, baina atezuan.

Deliak leihoa ireki zuen, mugitzeko eskaera hain erantzun erabatekoa izanarekin txunditurik, harridura hitz bihurtuz esaldi zaparrada bat ahoskatzen zuela. Ez nion kasurik egin; ahosabaia idortzen hasi zitzaidan bihotz taupadak areagotzen zitzaizkidanarekin batera. Komunean sartu nintzenean, txiza egiteko asmoarekin, ia ez nuela zerekin txiza egin baieztatu nuen. Pentsatu beharra zegoen. Parisot izango zen? Ez ninduen bereziki harrituko. Parisot-ek, behin ni hiltzeko agindua entzunda, ez zen zalantza askorekin ibiliko, ez behintzat nirekin tragoa egitera joateko baina zalantza handiagorekin. Baina zergatik, zergatik. Azken aldian harroxko samar nenbilela egia izanik ere, ez zen soka mozteko bezainbestekoa, hala uste nuen nik gutxienez. Polizia? Alde horretatik gauza nahikoa lotuta zegoelakoan nengoen, baina bestek esanda nekien nik hori, ez neronek baieztatua. Askatu nahi ez den herria askatzen setatzen diren beste horiek? Baina izenik gabeko auzo horretan, eta urtebetez han-hemenka ibili ondoren? Madarikatu nituen Parisot-en sorbalda gaineko txalokada itxuraz lagunkoiak, madarikatu nuen bere olioizko irribarrea, hiena bat ederbegi egiten zuena, madarikatu nituen poliziaren xake-jokoak eta madarikatu ere besteak bezalakoak —hau da, zaindu hire ipurdia ahal den bitartean, gainerakoa hor konpon— ez izaten tematzen diren iraultzaile purtzilak, madarikatu nituen unibertsoak oro eta azkenik nor eta zergatik gutxienekoa zela ebatzi. Aurpegia txukundu nuen mirail aurrean. Pentsatzea alperrik zen. Orrazia ileetatik iragan nuen. Ez naiz hankaz aurrera aterako. Horixe besterik ez nuen buruan. Sarean biltzear dagoen animalia nintzen, eta komunetik atera nintzenean ez nengoen gehiago beldurrez.

Delia kaleratzeko prest zegoen jada. Kotxeko giltzak poltsikotik atera nituen. Nora joango gara, jakin nahi zuen Deliak. Kotxeko giltzak dilindan ibili nituen airean, asto bati azenario zatia erakutsiko banio bezala. Deliak ere maite zuen BMW txikia. Hi ez haute izorratuko, Zara. Kaleko atea ireki nuen. "Zu lehenago", esan nion Deliari, atea zeharkatzeko gonbitea eginez, kotxeko giltzak bere sudur aurretik pasatuaz. Poliziari deitzea ere banuela igaro zitzaidan burutik, baina berehala uxatu nuen burutazioa; hala egin ezkerro barruan nengoela astebete baino lehen gauza segurua zen. Ni ez ninduten izorratuko, ez horixe, horrek betetzen zuen nire gogoa, oso osorik. Oraindik atea zeharkatzera egiten ez zuen Deliari kotxeko giltzak ematekotan nengoela Fannyren arrantza entzun genuen. Leihotik ari zen: "Deliaaaa! Deeeeliaaaaaa!"

Delia atzera itzuli zen, leihora, ipurdia airoso kulunkatuz. Eta egia balitz haurdun zegoela. Eta egia balitz ni nintzela aita. Nola okurritzen zaizkik horrelako basatikeriak, Zara, gizatasuna galtzen ari haiz. Nola egin horrelakorik

hire seme-alabaren ama izan litekeenari. Seme-alabarik munduratzeak merezi al du? Tira, beste gainerako putakumeeek ez al dituzte bere putakumetxoak mundurutzen? Bada, zergatik ez nik nire putakumetxoa ekarri? Deabrua lagun, mundu honetako putakumerik handiena izatera irits liteke. Zaila leukake, ordea, konkurrentzia gogorra da eta, oso gogorra; baina gogorra, gero. Halako zentzugabekeriak begitandu zitzaizkidan, halako amets sukartiak hartuta nengoen. Delia eta Fanny oraindik ari ziren leihotik leihora; Fanny ez zen ausartzen txirrintaz zegoela esatera, gurekin etorri nahi zuela esatera, alegia, eta Deliak ez zekien nola moztu haren hitz-jarioa zakarkeriarik gabe. Zotzak eginik zeuden. Delia, esaion gurekin etortzeko, behean itxoingo diogula. Ahotsak tripetatik eztarrira egin zuen bidaia, arnas aparaturik pasatu gabe. Deliak ez zidan ezer esan baina erotu ote nintzen pentsatzen ari zen; ez zuen mintzatu beharrik, soan nabaritzen zitzaion.

Etxeko atarian elkartu ginen. Fanny pozik zen gurekin etortzeagatik, algaraka eta barrezka ari zen, etengabe mintzaten zen. Delia egoeraren ustekabeak libertituta zegoen, eta ni mundu honetako gizon irribarretsuen nintzen. Eta hala eta guztiz, orduan ere onetatik ateratzen ninduen. Orduan inoiz baino gehiago. Ez galdetu nola egiten nuen gozo egoteko: atera egin zitzaidan pentsatu gabe, berez egin nuen, egin egin behar nuelako. "Delia eta biok gosaltzera goaz tabernara", esan nion Fanny-ri, "zoaz zu lehenago". Eta hau esaten nuelarik, kotxeko giltzak luzatu nizkion. Fanny-ri kuleroak deblauki bustiko zitzaizkion, gutxienez, burua egingo nuke. Zeeeeer? galdetu zidan. Ba, horixe, hartu kotxea, eman buelta bat eta etorri tabernara gure bila. Konturatu naiz maite duzula nire kotxea. Deliaen begiak bi ilargi borobil ziren eta begi-zuloetatik salto egiteko pronto zeuden. Fanny-k giltzak hartu eta kotxerantz jo zuen, gu tabernara abiatzen ginen bitartean. Kontzientziaren ahots ahula isilarazteko beharbada den dena nire irudimenaren fruitua baizik ez zela izango esan nion neure buruari, agian ez zela ezer gertatuko, eta, okerrenera jota, ezin daitekeela tortillarik egin arrautzarik puskatu gabe; kotxeaz ari nintzen, jakina.

Gosaltzeko whisky bat eskatu nuen, eta hori gehiegizkoa izan zen Deliaentzat: zerbait gertatzen ari zela nabaritzen ari zen, ez zekien zer, baina. Besotik heldu eta zeozer esaten hasi zitzaidan, baina une hartan zerbitzariari garbitzen ari zen baso handi bat erori zitzaion gure aurrean, eta zaratarekin ez nuen ezer aditu. Astindu batez askatu nintzen Deliaen besoaz eta barraren aurka bermatu nituen besagainak, inori kasurik egin gabe. Zerbitzaria erratzaren bila partitua zen, eta eroritako basoa han zegoen oraindik, mila puska ñimiñotan lehertuta, nork eskobatuko zain. Dozena erdi bat jende bazebilen tabernan, txutxu-mutxuka.

Lurra ireki zela iduri zuen. Altzariak, argiak eta kristalak dardarka hasi ziren, baina jendearen oihuek beste edozein kalapita estali zuten, tropelka eta ziztu bizian kanpora abiatu zirenean. Nik lehengo jarrera berean jarraitu nuen, baina inor ez zen konturatu. Besoak barraren aurka emanda eta kristalaren puska txikiei so. BMWaren haragi errearen puskarik handiena ez zela kristal zati txiki horiek baino askoz gehiago izango otu zitzaidan.